

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Ramon Jauregi Guridi

*Antzuola,
Gipuzkoa
(1960)*

Aurkibidea



Biografia



Irimoegigoena auzoko Sarasketa baserrikoa. [Jaime Larrea](#) lagunarekin elkarrizketatu genuen, Antzuolako hika jasotzeko. Bost anai-arreba dira, Jose Ramon mutil bakarra. Gurasoek zuka egiten zieten guztiei eta senideen artean zuka aritzen dira beraiek ere. Lagunekin, berriz, hika egiten du; mutilekin, neskekin ez. Bi alaba dauzka, eta haiei ere zuka egiten die gehienbat. Elkarrizketatu genuenean Ely enpresan ziharduen lanean, eta lankide batzuekin ere hika zerabilen.

Zintak

ANT-133

- **Proiektua:** Antzuolan hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2022-03-15
- **Iraupena:** 84 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Hika jaso, batak etxetik, besteak lagunartetik

- **Erref:** ANT-133/003
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:03:48. **Bukatu:** 00:04:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Txikitatik egiten du hika Jaimek, aitak hala egiten zion eta. Lagunartean hasi zen Jose Ramon.

2. Hika zeinekin egiten duten

- **Erref:** ANT-133/004
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:04:47. **Bukatu:** 00:06:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Jaimek hika lagunekin, anaiarekin, alabarekin noizean behin eta ilobarekin egiten du hika; lantokian ere bai. Ezagunekin egiten du, ez bada edadetua; orduan zuka. Jose Ramonek hika lagunekin egiten du, baita lantokian ere. Neskei egitea kosta egiten zaio; batzuk entzuten ditu neskei toka baina berari ez zaio gustatzen.

3. Adin askoren artean hika

- **Erref:** ANT-133/006
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:07:26. **Bukatu:** 00:09:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Jaimek jende edadetuari ez dio egiten, uste duelako besteari ez zaiola ondo pentsatuko. Pasarte bat kontatzen du, bera baino zaharrago batek zuka egin beharrean berari hika egiteko eskatu zionekoa. Jose Ramoni kosta egiten zaio lankide gazteek berari zuka egitea, nahiago du hika egin diezaioten. Alabak hika egiten dio askotan Jaimeri eta ilobak eta biek elkarri hika egiten diote.

4. Hika konfiantzan, eta emakumeei egitea kosta

- **Erref:** ANT-133/008
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:12:10. **Bukatu:** 00:13:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Jaimek alabari bietara egiten dio, hika eta zuka. Arrebari zuka egiten dio gehiago eta anaiari hika. Jose Ramonek arrebeekin zuka egiten du baina koinatuekin hika. Hika konfidantza duenari egiten diola dio Jaimek. Jose Ramoni kosta egiten zaio emakumeei hika egitea.

5. Hitanoa, etxetik ikastea onena

- **Erref:** ANT-133/013
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:17:38. **Bukatu:** 00:20:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika etxetik eta txikitatik hasi behar dela diote. Ohitura aldatzeak ahalegin

handia eskatzen duela diote. Beraiek baino zaharragoak diren emakumeek egiten dute hika.

6. Zeinek egiten duen hika Antzuolan

- **Erref:** ANT-133/015
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:20:34. **Bukatu:** 00:21:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Jaimek deskribatzen du hika ari direnen perfila: ikastolatik pasatu gabekoa, baserritik datorrena, adinean askotarikoa. Denetarik ikusten dutela diote: gurasoei hika, anai zaharrenari hika eta gazteari zuka...

7. Animaliei toka

- **Erref:** ANT-133/018
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:24:04. **Bukatu:** 00:25:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Animaliei hika egin izan diete eta orokorrean, toka, arrarena.

8. Hika egiten diotenari zuka egitea zaila

- **Erref:** ANT-133/023
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:28:29. **Bukatu:** 00:29:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Pena hartuko lukete hitanoa galduko balitz. Ezin dute zuka egin hika egitera ohituta daudenekin. Jaimek dio euskaraz egitera ohituta dagoenari erdaraz egitea bezain zaila egiten zaiola.

9. Noka berreskuratzeko, lehenengo neskek ekin behar

- **Erref:** ANT-133/025
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:30:21. **Bukatu:** 00:31:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Neskek lehenengo hika beraien kasatara egiten hasi beharko luketela uste du Jaimek. Hartara, haiek entzunez gero, norberak ere errazago egingo liekeela hika.</p>

10. Hitanoa, etxetik edo eskolatik jaso behar

- **Erref:** ANT-133/026
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:31:05. **Bukatu:** 00:34:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika egiten jarraitzea dela bidea diote: ez galtzeko, egin egin behar dela. Noka nola indartu ez dakite. Klean egiten ez duenak etxean ez duela egingo uste dute, eta alderantziz ere bai. Etxetik edo eskolatik jaso beharko luketela diote.</p>

11. Eskolan erdaraz ikasi behar

- **Erref:** ANT-133/032
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:38:42. **Bukatu:** 00:39:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Erdaraz egiten zuten eskolan. Bost urterekin eskolan hasi eta ez zekiten erdaraz, eta irakasleak ere ez euskaraz, baina zigortu egiten zituen. Jose Ramonek, batzuetan, alde egiten zuen eskolatik ulertzen ez zuenean.

12. Umetako jolasak, neskenak eta mutilenak

- **Erref:** ANT-133/034
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:39:50. **Bukatu:** 00:40:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

"Galdeona", txirikiletan, kaniketan, pilotan... ibiltzen ziren jolasean. Neskak tortolosean, gometan, soka saltoan... ibiltzen ziren.

13. Euskara, sasoi batean txarrago

- **Erref:** ANT-133/037
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:42:31. **Bukatu:** 00:44:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Sasoi batean euskara galtzear egon zela diote, kanpotik jende asko etorri zenean. Beraien adineko askok euskara galdu zuten. Euskararen egoera orain nahiko ona dela diote.

14. Bere lantokian euskara beharrezkoa denez, denek ikasten dute

- **Erref:** ANT-133/039
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:44:59. **Bukatu:** 00:48:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Umeek etxean euskara jaso arren, lagun artean erdaldunak badaude, erdaraz ere egiten dutela dio Jaimek. Euskara txarrago ikusi duela dio Jaimek. Batzuek euskaraz berehala ikasten dutela diote, beste batzuek inoiz ez. Jose Ramonek aipatzen du beharrak erakusten duela, beraien lantegian, Elain, dena euskaraz dagoela eta hara doanak ikasten duela. Lantokian erabat euskaraz funtzionatzeko nagusiak argi izan behar du. Euskara eskolak jasotzen dituzte lantokian bertan.

15. Lehen dantzalekuetan, orain tabernetan

- **Erref:** ANT-133/042
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:50:37. **Bukatu:** 00:52:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Diskoteketan eta dantzalekuetan ibiltzen ziren lehen; gazteak orain tabernetan batzen direla diote. Lehen oportetara abuztuan joaten zirela diote, baina 2-3 egunerako ez zirela inora joaten.

16. 1971ra arte, etxerako errepiderik ez

- **Erref:** ANT-133/043
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:52:20. **Bukatu:** 00:55:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Teknologia dena aldatu dela dio Jose Ramonek; eskuzko tresnetatik tekleatzera. Baserrirako bidea 1971n egin zuten. Abisuak oinez egiten zituzten lehen.

17. Umeekin, gazteekin eta lehiatiletan euskaraz

- **Erref:** ANT-133/045
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:58:58. **Bukatu:** 01:01:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Beraiek euskaraz egiten diete umeei eta gazteei eta haiek beraiekin ere berdin. Lehiatiletan lehenengo hitzak euskaraz ematen ditu Jose Ramonek. Jaimek ez du inoiz euskarazko klaserik jaso; beraiek baino gazteagoak hasi ziren ikastolan.

18. Antzuolako hizkeraz

- **Erref:** ANT-133/046
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 01:01:09. **Bukatu:** 01:03:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Gipuzkoa eta Bizkaiaren muga egonik, antzularrek Tolosako hizkera eta bizkaiera ulertzen dutela dio Jaimek, baina haiek antzularrena gutxi. Euskara dotorea tolosaldekoa dela diote. "Aittajuna" eta "amandria" esaten zituen lehen Jose Ramonek baina orain "aittitta" eta "amama" erabiltzen direla dio.

19. Alardean aldaketa handiak Antzuolan

- **Erref:** ANT-133/051
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 01:08:50. **Bukatu:** 01:12:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Alardearena asko aldatu dela diote. Duela berrogei urtekoarekin orain beldurtu egingo liratekeela dio. Gutxika euskaraz izatera pasa dela eta emakumeek ere berdin parte hartzen dutela diote.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com